

# BOGA

(autoikaskuntza ikastaroa)  
2010-2011

BOGA proiektua Internet bidez euskara ikasteko sistema da.

Sistema hau Aurten Bai Fundazioak garatu du eta HABEK moldaketak egin ditu Ikasten plataforman eskaintzeko.

Egun lektiboen kopuruan bakarka etxeko ordenagailuan edo KZgunean (euskaltegiak ez du ordenagailu zerbitzurik eskaintzen) **ordu bete egunean** gutxi gorabehera eman beharko duzu ikastaroari aprobetxamendua ateratzeko, hau da, **7,5 estrato** edo **1,5 urrats** aurreratzeko ikasturtean zehar (urritik ekainera bitartean).

Ordenagailuak berak ematen ditu zuzenketak eta beharrezkoak diren azalpenak.

Gainera euskaltegian zeure irakaslearekin zalantzak argitzeko **bakarkako tutoretzak** eskaintzen dizkizugu (hilean behin), eta taldean egiten diren **mintzasaioak**, hauek ere irakasle baten gidaritzapean (astean behin edo hamabost egunean behin).

Hala ere, helburu maila lortzeko zeure kabuz ere entzuten eta irakurtzen saiatu beharko duzu eta euskaraz egiten familiarekin, lagunekin... bakarka ikasitako gutzia praktikan jarri ahal izateko.

## 1etik 4.urratsera

190 ordu		162 ordu bakarka ordenagailuan 9 ordu tutoretza 19 mintzasaio taldeka
----------	--	---

## 5.urratsetik aurrera

190 ordu		149 ordu bakarka ordenagailuan 9 ordu tutoretza 32 mintzasaio taldeka
----------	--	---

Matrikula prezioa **265,00 €koa** da.

Interneteko konexioa ikaslearen kontu izango da.

## **BEHARREZKO BALDINTZAK**

Internerako konexioa duen ordenagailua

Software Sistema eragilea: edozein

Nabigatzailea :edozein

Windows Media Player 5.0, Winamp edo antzekoa

Hardware Pentium prozesadorea

256MB RAM

Gutxienez 800x600 pixeldun pantaila

Soinu-txartela

CD irakurgailua

Flash player eta Shokwave doaneko programak

Gutziz beharrezkoa da Internet eta korreo elektronikoa erabiltzaile mailan ezagutzea.

Ariketa bakarren bat ikusteko, Shokwave artxiboak irekitzeko "plugin"ak (kontroladoreak) behar dira. Hauek ez daude Linux sistema operatiboarentzat. Dena den, Linux izanez gero, euskaltegian bertan egin ahal izango dituzu irakaslearekiko tutoretza orduan.